


Abenduaren 5a: Boluntariotzaren nazioarteko eguna

EAEko bost gaztetatik batek noizbait boluntario gisa lan egin duela dio.

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %19,6k diote gaur egun lanean ari direla edo lehen aritu zirela Gobernuz Kanpoko Erakunderen edo antzekoren batean. Gehiago dira, hala ere, boluntario-lanetan lehen aritzen zirenak baina dagoeneko ez (%13,2), orain dabiltzanak baino (%6,4).



Gaur egun boluntario-lanetan dabiltzan gazteak pixka bat gehiago dira Gipuzkoan, beste lurraldeetan baino, herri txiki edo ertinetan, handienetan baino, eta gehixeago dira ere klase sozial ertaineko gazteen artean gainontzekoen artean baino. Ikasketak eta lana bateratzen dutenek kopuru handiagoan parte hartzen dute honelako ekintzetan gainontzeko gazteek baino.

Hauek **datu guztiak** Gazteen Euskal Behatokiak 2008 urte bukaeran burututako **ikerketa batetik atera dira. Ikerketa** hori, oraindik **argitaratzeko bidean dagoena**, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei telefonoren bidez egindako elkarrizketetan oinarritu da. 2011ko lehen seihilekoan plazaratuko da ondoko izenburuarekin: **“Sinismen, etika eta erlijioa”**.